

**Itsasondoko Udalean  
euskaren erabilera  
normalizatzeko planaren  
balorazioa eta aurrera  
begira hartu beharreko  
neurriak.  
2000      2005**

# AURKIBIDEA

## **I.- SARRERA**

- 1.- Planaren testuingurua
- 2.- Helburuak
- 3.- Metodologia
- 4.- Neurriak betetzeko azpiegitura
- 5.- Itsasondoko Udala

## **II.- UDALA: EGUNGO EGOERA, HELBURUAK ETA PROPOSAMENA**

### **1.- Alorkako balorazioa eta aurrera begira hartu beharreko neurriak**

- 1.1. Langileen hizkuntza gaitasuna
- 1.2. Kanpo harremanak
- 1.3. Barne harremanak
- 1.4. Hizkuntza paisaia
- 1.5. Baliabide informatikoak
- 1.6. Jarrerak eta sentsibilizazioa

### **2.- Euskararen erabilerarako jarraibideak eta hizkuntza irizpideak**

- 2.1. Hizkuntzaren erabilerarako jarraibideak
- 2.2. Euskararen erabilerarako jarraibideen itzulpen-irizpidea osagarriak
- 2.3. Zenbait jarduera-esparrutarako hizkuntza irizpideak
  - 2.3.1. Langileen etengabeko prestakuntza
  - 2.3.2. Kontratazioak
  - 2.3.3. Dirulaguntzak
  - 2.3.4. Administrazioaren irudia eta argitalpenak
  - 2.3.5. Ekitaldi publikoak
  - 2.3.6. Udal baimenak

# I. SARRERA

## 1) Planaren testuingurua

Euskal Autonomi Erkidegoko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomi Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren oinarri ere badira.

Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan zuen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen.

Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, Itsasondoko Udala partaide den Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Horiek horrela, UEMAk euskararen erabilera normaltzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan eta, lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak (dekretuak indarrean jarraitzen du eta III. Plangintzaldiak 2003ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31 arte iraungo du), elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauari.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman baziren euskarazko hizkuntza gaitasuna zuten langileen kopuruan, bigarren plangintzalditik aurrera, administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra azaltzen dira.

Horrela, 86/1997 dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Urrats horiekin loturik, Itsasondoko Udalak indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion euskararen erabilera normalizatzeko plana landu eta onartu zuen 2000. urtean. Plan hori martxan jarri zenetik lortutako emaitzak ikusteko, balorazioa egin dugu.

## 2) Helburuak

Euskara planen **helburu nagusia** da herri administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara planon **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. **Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

2. **Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza** izan dadin bermatzea.

3. Hala dagokionean, **euskara administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Testuinguru honetan EAEko Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zenetik, herri administrazioetan hainbat urrats eman da euskararen normalizazioa sustatu eta lortzearen. Horrela, EAEko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea garatuz, herri administrazioek, besteak beste, bertako langileek lan eginkizunak euskaraz betetzeko hizkuntza ezagutza maila egokia lor zezaten neurriak hartu zituzten, 1990-1995 plangintzaldian.

86/97 Dekretuak aurreko plangintzaldian egindako ibilbideari jarraitu eta ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko oinarriak ezarri zituen. Bigarren plangintzaldian egin beharreko nagusia erakunde bakoitzak bere hizkuntza egoeratik abiatuz euskararen erabilera normalizatzeko planak (hemendik aurrera "euskara plana" deituko diogu) zehaztea eta abian jartzea izan zen.

## 3) Metodologia

Programa hau martxan jarri eta garatzeko "**Administrazioetan Euskara Bermatzeko Egitasmoen Metodologia (AEBEMET)**" tresna metodologikoa sortu eta garatu zen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik. AEBE programa eta metodologia erakunde mota ezberdinen egoeretara egokitu daitezke eta hala egitea komeni da gainera. Kasu honetan udaletarako egindako egokitzapenak hartu ziren kontuan.

Balorazioa egiteko orduan, AEBEMET metodologiatik alorren atala hartu dugu kontuan.

#### **4) Neurriak betetzeko azpiegitura**

Txosten honetan zehaztuko diren neurri berriak eta proposamenak nork eta nola bete/betearazi jasoko dugu puntu honetan. Uste dugu azpiegitura honekin politikoak eta langileak inplikatzeko lortuko dugula.

Jarraipen batzordeak izango du neurri berriak aplikatzeko ardura nagusia.

##### **Jarraipen batzordea:**

Kideak:

- Arduradun politikoak: bereziki UEMako ordezkariak eta euskara alorreko arduraduna
- Euskara batzordea
- Udaleko edo eskualdeko euskara teknikaria, baldin badago
- Zerbitzuburuak
- UEMako hizkuntza normalkuntzarako teknikaria

Betebeharrak:

- Talde eragilea izango da.
- Sei hilabetero elkartuko da gutxienez eta hurrengo sei hilabeteetako lanak zehaztuko ditu aldi bakoitzean.
- Txosten honetan onartutako aurrera begirako neurri eta proposamen bakoitza betetzeko ardurak banatuko ditu.
- Neurri bakoitza betetzeko eta betearazteko arduradunak izendatuko ditu.
- Aurreko jarraipen batzordean banatutako lan eta ardurak bete diren baloratu eta egokitzapenak egingo
- Udalbatzari edo Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio zer neurri eta erabaki hartuko diren.

##### **Udalbatza edo Gobernu Batzordea**

Betebeharrak:

- Jarraipen Batzordeak hartutako neurri eta erabakien jakinaren gainean jartzea udal langile, arduradun politiko
- Jarraipen Batzordeak hartutako neurri eta erabakiak betetzen direla bermatzea.
- Neurriak gauzatzeko baldintzak eta baliabideak erraztea.

##### **UEMAko hizkuntza normalkuntzako teknikaria:**

Betebeharrak:

- Txostenean eta jarraipen batzordean zehaztutako neurriak eta proposamenak betetzen laguntzea eta aholkularitza ematea.

## 5) ITSASONDOKO UDALA

### 5.1) Administrazio atalen sailkapena eta lehentasunak

#### **Euskarazko administrazio atalak**

86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, bere zereginak Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak. Bere zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren iritziz, atala euskarazko izendatzeko kontuan hartu beharreko baldintzak hauek ziren, eta guk ere baldintza horien arabera izendatuko ditugu BB (euskarazko atal izendatzeko baldintzak betetzen dituzten atalak):

1. Atala osatzen duten lanpostu guztiek edo ia guztiek (%80ek) derrigortasun- data izatea euren lanpostuetan.
2. Ataleko langile guztiek edo ia guztiek (%80ek) nork bere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. 4HE duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak 3HE egiaztatuta izatea. 4HE duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak 3HE egiaztatuta izatea. (Atalen izendapena egiteko derrigortasun-data izan eta salbuetsita daudenak ere kontuan hartu dira egiaztatze- kopuruaren aldetik, hau da, egiaztatuta izan behar dute benetako baldintzak betetzeko).
3. Atalburuak derrigortasun- data izatea eta dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

#### **Horrenbestez,**

Itsasondoko Udalean dauden administrazio-atalak, Idazkaritza eta zerbitzuak, euskarazko atal izendatu genituen 2000. urtean. Beraz, lanpostuetan euskara, zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izan da; hau da, agiriaren sorburu-hizkuntza euskara izan da, bai eta lehen hizkuntza ere jendaurreko harremanetan eta atalaren gainerako zereginetan ere.

<b>ADMINISTRAZIO ATALA</b>	<b>SAILKAPENA</b>	<b>Langile kopurua guztira</b>
Idazkaritza kontuhartzailletza	<b>E(2000)</b>	<b>5</b>
Obrak eta Zerbitzuak	E(2000)	1
<b>GUZTIRA</b>		<b>6</b>

Horiek horrela, euskara-planak era honetan eragingo du Itsasondoko Udalean: Guztira 7 lanpostu dira eta guztiek dute DD ezarrita. Horietatik 6 lanpostu daude beteta eta zazpigarrena hutsik dago. Hala ere, hutsik dagoen lanpostu horrek badu DD ezarrita eta horrek berrmatuko digu lanpostu hori beteko duen langileak dagokion HE egiaztatuta izango duela. Ondorioz, momentuz, Itsasondoko Udalean aurrera begira hartu beharreko neurriak zehazteko egingo den planean 6 langile sartuko dira.

Bestalde, balorazioa egiterakoan, idazkaritzan sartu dugu Obrak eta zerbitzuak administrazio atala. Plana egin zenean ere Idazkaritza-kontuhartzailletza baino ez baitzen kontuan hartu hizkuntza gaitasuna alorrean ez beste alor guztietan.

## **5.2) Prozedura eta Edukiak**

### **Prozedura**

Euskara Planaren balorazioa egiteko eta aurrera begirako neurriak hartzeko ondoko pausuak eman ditugu:

- 1. Alorretako datuak bildu udaletako langileekin batera.**
- 2. Datuak bildu ondoren, aurreko datu bilketako emaitzak eta honetakoak kontrastatu eta datozen urteetarako proposamenak landu.**
- 3. Txostena idatzi.**
- 4. Udalari aurkeztu eta adostu.**
- 5. Neurri berriak martxan jarri.**

### **Edukiak**

Euskara planaren balorazio honen bidez, bi urterako proiektua definitu dugu.

## **I.- UDALA: EGOERA, HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK**

Erabilera planaren bideragarritasun txostena 2000ko otsailean onartu zen Itsasondoko Udalean eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana 2000ko abenduan.

Plana 2 urteko epean burutzea aurreikusi zen, urtez urteko programak osatuz, helburuak era mailakatuan lortzearen.

Eskuetan duzuen txosten honetan, plan horren **balorazioa** eta hurrengo bi urteetan eman beharreko pausuak ageri dira.

Txosten honetan, plana onartu zenean Itsasondoko Udalean zegoen egoera eta gaur egunekoa konparatu ditugu. Horretarako, plana onartzeko egin zen alorkako datu bilketa hartu dugu oinarri eta horren arabera egin dugu bigarren datu bilketa hau.

Baliteke lagin-kopuru desberdina erabili izana lehenengo eta bigarren datu-bilketan eta hori dela eta, balorazioa egiterakoan, indizeak ehunekotan eman ditugu.

Ondoren aztertuko dira:

- 1) Alorkako balorazioa eta aurrera begira hartu beharreko neurriak
- 2) Hizkuntza irizpideen balorazioa eta aurrera begira hartu beharreko neurriak

### **1) ALORKAKO BALORAZIOA ETA AUERRERA BEGIRA HARTU BEHARREKO**

Alorkako azterketa diogunean edozein erakunderentzat estrategikoak diren egoera multzoak lantzea esan nahi da.

Azterketa honetan aipatutako alor bakoitzeko egoera adierazgarriak aukeratzen ditu erakunde bakoitzak, landuko diren helburuen arabekoak. Jarraipenerako sistema errazteko bidea ere ematen du, lagin edo muestra bidez aukeratutako alorren egoera azkar jaso eta adieraziz.

Alorretan era honetako informazioa lantzen da:

1. Alorra: **hizkuntza gaitasuna**. Hizkuntza eskakizunak, derrigortasun datak, derrigortasunen betetze maila, hizkuntza prestakuntza orokorra, trebakuntza.

2. Alorra: **kanpo harremanak**. Udaletik kanpora doana jasotzen da hemen, herritarrei, beste administrazioei, hornitzaileei eta abarrei zuzendutakoak, hain zuzen ere.

3. Alorra: **barne harremanak**. Udalaren barruko harremanak (atal barne/atal artekoak) jasotzen dira, hala nola: barne zirkularrak, ofizioak, txosten labur/luzeak, ahozko eta telefonozko harremanak e.a.

4. Alorra: **Hizkuntza paisaia**. Erakundearen irudia jasotzen da, bai kanpora bai barrura begirakoa: errotulazioa, katalogoak, iragarkiak, etiketajea, zigiluak, e.a.

5. Alorra: **Baliabide informatikoak eta teknologia berriak**. Euskaraz lan egin ahal izateko baliabide informatikoen egoera aztertzen da.

## 1.1.- LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA

Atal honetan udalari dagokion derrigortasun indizea, indize horren betetze maila, hau da, zenbat langilek egiaztatu duten lanpostuan ezarrita duten hizkuntza eskakizuna, langile elebidunen portzentajea, ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna eta langileen trebakuntza maila jasotzen dira. Langileek betetzen duten lanpostuko lan eginkizunak euskaraz eragozpenik gabe egin ahal izan ditzaten ematen zaien prestakuntza bereziari deituko diogu trebakuntza. Prestakuntza banakakoa zein taldekoa izan daiteke.

### 1.1.1.- Udal langileen eta arduradun politikoen hizkuntza gaitasuna

Hona hemen lehenengo datu-bilketako eta bigarreneko emaitzak, balorazioak eta aurrera begira hartu beharreko neurriak.

#### A) LANGILEAK

	Neurketa: 2000			Neurketa: 2005		
	Kopurua guztira	Beteta/ egiaztatuta	Egiaztatuta indizea	Kopurua guztira	Beteta/ egiaztatuta	Egiaztatuta indizea
Derrigortasun indizea:	5	5	100%	7	7	100%
Derrigortasunaren betetze maila:	5	5	100%	6	6	100%
1.HE derrigortasunaren betetze maila:	0	0	100%	0	0	####
2. HE derrigortasunaren betetze maila:	1	1	100%	1	1	100%
3. HE derrigortasunaren betetze maila:	3	3	100%	4	4	100%
4. HE derrigortasunaren betetze maila:	1	1	100%	1	1	100%
Trebakuntza maila:	0	0	####	0	0	####

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza gaitasuna
<b>Adierazlea:</b>	Derrigortasun indizea
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udal langile guztiek beren lana euskaraz burutu ahal izateko duten hizkuntza eskakizunari dagokion derrigortasun indizea ezarria izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Gaur egun, plana egin zenean bezalaxe, Udaleko lanpostu guztiek dute Derrigortasun Data ezarria. Horrek lanpostu zerrendako langile berriak kontratatzerakoan irizpidea kontuan hartu dela esan nahi du.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala, irizpidea kontuan hartu eta lanpostu zerrendako langileren bat kontratuz gero, lanpostuak DD ezarrita duela bermatzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza gaitasuna  
**Adierazlea:** Derrigortasunaren betetze maila  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**Planean ageri den helburua:**  
Udal langile guztiek lana euskaraz burutu ahal izateko dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.  
**Balorazioa:**  
Bete da jarritako helburua  
**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**  
Orain arte bezala, lanpostu zerrendarako kontratatzen den langile orok dagokin hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duela bermatzea, eta horretarako beharrezkoak diren prozedurak egitea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza gaitasuna  
**Adierazlea:** 1 HE derrigortasunaren betetze maila  
**1. neurketako eusk. indizea:**  
**2. neurketako eusk. indizea:**  
**Planean ageri den helburua:**  
1HE ezarrita duten langile guztiek egiaztatuta edukitzea.  
**Balorazioa:**  
Lanpostu zerrendan ez dago lehenengo hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharreko langilerik.  
**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**  
Inoiz lanposturen bati 1. HE ezarriz gero, kontratatzen den langileak egiaztatu dezala bermatzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza gaitasuna  
**Adierazlea:** 2 HE derrigortasunaren betetze maila  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**Planean ageri den helburua:**  
2HE ezarrita duten langile guztiek egiaztatuta edukitzea.  
**Balorazioa:**  
Itsasondoko Udalean Zerbitzu anitzeko operarioari dagokio 2 HE eta plana egin zenetik egiaztatuta dauka.  
**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**  
Inoiz lanposturen bati 2. HE ezarriz gero, kontratatzen den langileak egiaztatu dezala bermatzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza gaitasuna  
**Adierazlea:** 3 HE derrigortasunaren betetze maila  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**Planean ageri den helburua:**  
3HE ezarrita duten langile guztiek egiaztatuta edukitzea.

**Balorazioa:**  
Bost lanposturi dagokie 3.HE. Gaur egun, ordea, horietatik lau lanpostu baino ez daude beteta. Bosgarrena hutsik dago. Beteta dauden lanpostuetako langileek egiaztatuta dute dagokien HE. Beraz, bete da jarritako helburua.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Hutsik dagoen lanpostua betetzerako orduan, beteko duen langileak 3HE egiaztatuta izango duela bermatzea, eta horretarako

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza gaitasuna  
**Adierazlea:** 4 HE derrigortasunaren betetze maila  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**Planean ageri den helburua:**  
4HE ezarrita duten langile guztiek egiaztatuta edukitzea.

**Balorazioa:**  
Lanpostu zerrendako langile bati baino ez dagokio 4HE egiaztatzea eta egun, egiaztatuta du.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Inoiz lanposturen bati 4. HE ezarriz gero, kontratatzen den langileak egiaztatu dezala bermatzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza gaitasuna  
**Adierazlea:** Trebakuntza maila

**1. neurketako eusk. indizea:**

**2. neurketako eusk. indizea:**

**Planean ageri den helburua:**


Beharren arabera, langileek trebakuntza ikastaroak jasotzea.

**Balorazioa:**

Udal langileek ez dute trebakuntza saiork jasotze. Plana egin zenean aurrikusi zen hizkuntza trebakuntza eman ahal izango zela langileak UEMAK edo IVAPek antolatutako ikastaroetan parte hartuz, baina ez zaie horrelakorik eskaini eta ez dute eskatu ere egin. Hala ere, UEMAK internet bidez langileen eskura jarri dituen saioretan parte hartu du udal langile batek.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

UEMAK ala IVAPek antolatu ditzaketan trebakuntza ikastaroetan parte hartzea langileek, eta horretarako erraztasunak ematea udalak.





**B) ORDEZKARI POLITIKOAK:**

Datuotan ikus daitekeenez, Itsasondago Udaleko arduradun politikoek ez dute inolako arazorik euren jarduna euskaraz burutzeko.

**Ulermena**

Ezer ez 0%  
 Hitz batzuk 0%  
 Zertxobait 0%  
 Nahiko ongi 0%  
 Ongi 100%



0% Ezer ez  
 0% Hitz batzuk  
 0% Zertxobait  
 0% Nahiko ongi  
 100% Ongi



**Mintzamena**

Ezer ez 0%  
 Hitz batzuk 0%  
 Zertxobait 0%  
 Nahiko ongi 0%  
 Ongi 100%



0% Ezer ez  
 0% Hitz batzuk  
 0% Zertxobait  
 0% Nahiko ongi  
 100% Ongi



**Irakurmena**

Ezer ez 0%  
 Hitz batzuk 0%  
 Zertxobait 0%  
 Nahiko ongi 0%  
 Ongi 100%



0% Ezer ez  
 0% Hitz batzuk  
 0% Zertxobait  
 0% Nahiko ongi  
 100% Ongi



**Idazmena**

Ezer ez 0%  
 Hitz batzuk 0%  
 Zertxobait 43%  
 Nahiko ongi 0%  
 Ongi 57%

0% Ezer ez  
 0% Hitz batzuk  
 0% Zertxobait  
 0% Nahiko ongi  
 100% Ongi



## 1.2.- KANPO HARREMANAK

Udalak udalaz kanpokoekin dituen harremanak dira kanpo harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak. Udalaren kanpo harremanik ohikoenak honako hauekin izaten dira: herritarrak, erakunde publikoak, zerbitzu enpresak eta hornitzaileak.

Agertzen diren emaitzak udaletxetik ateratzen diren dokumentuei dagozkie.


Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera aztertzeko, ondoko egoerak neurtu dira:

- a/.-Telefonoa jasotzean erabiltzen den lehen hitza.
- b/.-Udalera joaten diren herritarrei harrera zein hizkuntzatan egin zaien.
- c/.- Ekitaldi publikoetako hizkuntza

Idatzizko komunikazioetan erabilera zertan den jakiteko, ofizioak, txostenak, dekretuak, erabaki proposamenak, baldintza pleguak eta kanpora doazen beste dokumentu batzuen laginketa egin da.

Hona hemen lehenengo eta bigarren datu-bilketako emaitzak, balorazioa eta aurrera begira hartu beharreko neurriak:

	Neurketa data: 2000					Neurketa data: 2005				
	Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Euskarazko indizea	Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Euskarazko indizea
KH HIZKUNTZA:	38	11	0	49	78%	39	2	0	41	95%
AHOZKO KH:	5	0	0	5	100%	7	0	0	7	100%
IDATZIZKO KH:	33	11	0	44	75%	32	2	0	34	94%



<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Telefonozko KHTako hizkuntza
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Telefonozko harremanak euskaraz izatea. Herritarrak gaztelaniaren aldeko apustua egiten badu soilik, hitz egingo da gaztelaniaz. Lehenengo hitza beti euskaraz.
<b>Balorazioa:</b>	Aztertu den laginaren arabera, plana egin zenean bezala, betetzen da jarri zen helburua
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Leihatilako harrera hizkuntza
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udalera datozen herritarrei harrera euskaraz egitea. Herritarrak hala erabakiko balu, soilik, hitz egingo da gaztelaniaz.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua. Udalera datozen herritarrei euskaraz egiten zaie harrera, eta herritarrak berak euskaraz ez dakielako gaztelaniaz hitz egiten badu, orduan hitz egiten zaio gaztelaniaz.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Ekitaldi publikoetako hizkuntza
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udaleko ordezkari politiko zein langileek Udalaren izenean hitz egiten dutenean, euskaraz egitea eta Udalak, hitz egingo duenaren euskara gaitasuna zaintzea.
<b>Balorazioa:</b>	Ez da laginik aztertu.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Inoiz ordezkari politiko zein langileren batek Udalaren izenean hitz egiten duenean, euskaraz egitea eta hizkuntza gaitasuna zaintzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Prentsaurrekoetako hizkuntza
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udaleko ordezkari politiko zein langileek udalaren izenean hitz egiten dutenean, euskaraz egitea. Eta udalak, hitz egingo duenaren euskara gaitasuna zaintzea.
<b>Balorazioa:</b>	Ordezkari politikoen emandako prentsaurrekoak euskaraz izan dira beti.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Herritarrei zuzendutako dokumentu errezak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	53%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	92%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Herritarrei zuzendutako dokumentu errazetako hizkuntza euskara izatea. Herritarrak hala erabakitzen badu, orduan, bi hizkuntzetan eskuratu ahal izango ditu Udaletxean.
<b>Balorazioa:</b>	Argi ikusten da, erabilera plana egin zenetik hona urrats garrantzitsua eman dela herritarrei zuzendutako dokumentu errazetan. Helburu nagusi bezala herritarrei begirako dokumentuak normalizatzea jarri zen helburu planean, eta ikus daiteke, gaur egun dokumentu horien %92a euskaraz sortzen dela. Gainera, indize hori %100 ez bada, dokumentu bat euskara hutsez eta elebietan dagoelako da, ez elebietan baino ez dagoelako.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Herritarrei zuzendutako dokumentu konplexuak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	63%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Herritarrei zuzendutako dokumentu konplexuetako hizkuntza euskara izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua. Aztertutako laginaren arabera, egun herritarrei zuzendutako dokumentu konplexuetako hizkuntza euskara da. .
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea


<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Erakundeei zuzendutako dokumentu errezak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	90%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Erakundeei zuzendutako dokumentu errazetako hizkuntza euskara izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua. Izan ere, aztertutako laginean erakundeei zuzendutako dokumentu erraz guztiak (bat izan ezik) euskaraz daude. Indizea %90era jaistearen arrazoia, Euskal Herritik kanpo bidalitako dokumentu bat da eta elebietan dago.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Erakundeei zuzendutako dokumentu konplexuak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Erakundeei zuzendutako dokumentu konplexuetako hizkuntza euskara izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Plana egin zenean, ez zen modu honetako laginik aztertu. Orain aztertu den lagina euskaraz dago. Beraz, bete da jarritako helburua.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Kanpo harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Zerbitzu enpresei zuzendutako dokumentuak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Zerbitzu enpresei zuzentzen zaien dokumentazioa euskaraz izatea
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Kanpo harremanak  
**Adierazlea:** Hornitzaileei zuzendutako dokumentuak  
**1. neurketako eusk. indizea:**  
**2. neurketako eusk. indizea:**  
**Planean ageri den helburua:** Hornitzaileekiko idatzizko harremana euskaraz izatea.  
**Balorazioa:** Ez da laginik aukitu.  
**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:** Hornitzaileekin izaten diren harremanetan, dokumentazioa euskaraz bidaltzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Kanpo harremanak  
**Adierazlea:** Argitalpenak  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:**  
**Planean ageri den helburua:** Udalak egiten dituen argitalpenetako hizkuntza euskara izatea.  
**Balorazioa:** Ez da laginik aztertu.  
**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:** Udalak egiten dituen argitalpenetako hizkuntza euskara izatea.



### \* **Udalera kanpotik datorrena**

Beste alde batetik, bereiztu egin nahi izan dugu, beste administrazio publikoetatik zein pribatuetatik, zerbitzu enpresetatik eta hornitzaileengandik udaletxera heltzen diren agiriaren hizkuntza.

Beraz, erakunde publiko zein pribatuekin, enpresekin, hornitzaileekin dauden harremanak euskaraz ere izatea lortzea da helburua. Kanpo harremanetan lortu behar dena ondorengoa da: beste erakundeek, enpresek, hornitzaileek udalarekiko harremanen ehuneko handia euskaraz izatea.

Planean jasota dagoen bezala, jarraian agertzen dira kanpo harreman hauetarako finkatuta dauden helburuak:

**Ahozko kanpo harremanak:** lehen urte honetarako helburua, erakundeetan eta hornitzaileetan harremanetarako langile elebidunak identifikatzea izango da.

### **Idatzizko kanpo harremanak:**

Helburuak:

#### 1. Erakunde publikoekin:

. Gaztelerazko agiririk ez heltzea. Lehenengo urtean gutxienez euskaraz bidaltzeko konpromisoa har dezatela lortzea.

. Elebietan bidaltzen diren agiriak, euskara hutsean bidaltzeko ahalegina egin dezatela. Honela, euskara hutsez jasotzen den indizea igotzea.

#### 2. Erakunde pribatuekin:

. Eurekiko harremanak gutxienez euskaraz ere nahi direla adieraztea eta gutxieneko konpromiso batera heltzea.

#### 3. Hornitzaileekin:

. Aurrekontuak, fakturak eta gainerako idazkiak euskaraz egiteko eskatzea.

Jarraian, erakunde publiko eta udalen arteko erlazioa aztertu nahi izan da, hots, erakunde publiko ezberdinekin izaten den ahozko harremana zein hizkuntzatan izaten den eta erakunde publiko horietatik udalera iristen den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen. Horretarako sarrera erregistroa erabiltzen da. Baina gaur egun Itsasondoko Udalean sarrera erregistroa modu informatizatuan ematen da eta ez da sarrera hizkuntza kontuan hartzen. Hori dela eta, ezin izan dugu azterketa hori egin.

Erakunde pribatu eta hornitzaileekiko harremana hizkuntza irizpideetan, kontratuak atalean, aztertuko da.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Kanpo harremanak  
**Adierazlea:** Sarrerak

**Planean ageri den helburua:**

Udalera iristen den dokumentu oro, gutxienez euskaraz ere egotea, eta ahal den neurrian euskara hutsean. Eta ahozko harremanak ere euskaraz izatea.

**Balorazioa:**

Erregistroaren jarraipena informatika bidez egiten da, eta ez da Udalara sartzen diren dokumentuen hizkuntza kontuan hartzen. Hori dela eta, ezin izan dugu erregistroaren behaketa zuzena egin.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Erregistroaren jarraipean egiteko aplikazioa informatikoan sartzen diren dokumentuen hizkuntza jasotzeko erregistroa sortzea.

### 1.3.- BARNE HARREMANAK

Barne harremanak langileek eurak kokatuta dauden administrazio atalaren baitan zein beste atal batzuekin dituzten harremanak dira. Barne harremanetan sartzen dira atal barneko dokumentuak eta atalen artekoak, arduradun politikoekin egiten diren batzarrak eta, orokorrean, udalaren ohiko funtzionamendurako harremanak.


Kanpo harremanetan egin den bezala barne harremanetan ere ahozkoak eta idatzizkoak desberdindu dira.

- Ahozko euskarazko harremanak izeneko zutabeen telefonozko barne harremanak eta lan bileretako hizkuntza aztertu dira.

-Idatzizko euskarazko dokumentuen zutabeen, nomina orri/pertsonalaren eskaerak, lan-bileretako agiriak, txosten laburrak, aurrekontu dokumentuak eta lan kontratuak aztertu dira. Guztira 37 dokumentu hartu dira.

Hona hemen lehenengo eta bigarren datu-bilketako emaitzak, balorazioa eta aurrera begira hartu beharreko neurriak:

	Neurketa data: 2000				Neurketa data: 2005					
	Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Euskarazko Indizea	Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Euskarazko Indizea
BH HIZKUNTZA:	32	4	0	36	89%	30	7	0	37	81%
AHOZKO BH:	5	0	0	5	100%	7	0	0	7	100%
IDATZIZKO BH:	27	4	0	31	87%	23	7	0	30	77%



**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Barne harremanak  
**Adierazlea:** Telefonozko Bhtako hizkuntza  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 100%

**Planean ageri den helburua:**

Telefonozko barne harremanetako hizkuntza euskara izatea.

**Balorazioa:**

Bete da jarritako helburua.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Orain arte bezala jarraitzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Barne harremanak  
**Adierazlea:** Lan bilerak  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 100%

**Planean ageri den helburua:**

Udaleko bilera guztiak euskaraz egitea.

**Balorazioa:**

Egun, euskaraz egiten dira lan bilerak guztiak. Beraz, bete da jarritako helburua.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Orain arte bezala jarraitzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Barne harremanak  
**Adierazlea:** Barne zirkular/ ofizioak  
**1. neurketako eusk. indizea:** 100%

**2. neurketako eusk. indizea:**

**Planean ageri den helburua:**

Barne zirkularrak euskaraz idaztea.

**Balorazioa:**

Ez da laginik aztertu

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Inoiz barne zirkularrik edo ofiziorik idazten bada, euskaraz egitea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Nomina/pertsonalaren eskaerak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	0%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Nomina/pertsonalaren eskaerak euskara hutsez egitea.
<b>Balorazioa:</b>	Aztertutako nominaren inprimakia elebietako da, baina gaztelaniaz dago beteta.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Aurrera begira nominak euskarazko inprimakian egitea eta euskaraz betetzea. Horretarako ereduak badaude UEMaren web orrain eskuragarri.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Lan bileretako agiriak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Lan bileretako agiriak euskara hutsean egotea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Txosten laburrak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Txosten laburrak euskara hutsean egotea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea


<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Txosten luzeak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	50%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Txosten luzeetako hizkuntza euskara izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua. Plana egin zenean aztertu ziren txostenen erdiak elebietan zeuden eta egun euskaraz daude.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Txosten luzeak euskaraz egiten jarraitzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Memoria/ proiektuak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>Planean ageri den helburua:</b>	
	Udalean egiten diren memoria/proiektuak euskaraz egitea.
<b>Balorazioa:</b>	
	Ez da laginik aztertu.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	
	Helburua betetzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Aurrekontu dokumentuak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	50%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	0%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	
	Aurrekontu dokumentuak euskaraz egitea.
<b>Balorazioa:</b>	
	Aurrekontua IZFEren bidez egiten da. Aplikazioan datozen oinarrizko kontzeptuak elebietan datoz, baina euskaraz betetzen da.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	
	IZFEekin harremanetan jarri eta herri euskaldunetarako sortzen dituen aplikazioak euskaraz lan egin ahal izateko moduan jartzeko eskatuko zaio.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Barne harremanak
<b>Adierazlea:</b>	Lan kontratuak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	80%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	
	Lan kontratuak euskaraz egotea.
<b>Balorazioa:</b>	
	Euskaraz daude Udalak berak egiten dituen kontratuak. Gaztelaniaz dago, ordea, INEMen bidez egindako ordezkapen kontratazioa bat.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	
	Udalean egiten diren kontratuak orain arte bezala euskaraz egiten jarraitzea, eta INEMekin kontraturen bat egin behar denean, gutxienez euskaraz ere egin dezala eskatzea.

**BARNE HARREMANAK.**  
**Ahozkoa eta idatzizkoa.**




### 1.4.- HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza paisaia udalaren irudia osatzen duten elementuek gorpuzten dute, balio sinboliko zein informatiboa erantsiz. Kanpoko hizkuntza paisaian errotulu nagusiak, informazio eta norabidezko errotuluak, aparkalekuetakoak, katalogo, gida, prentsa iragarki, megafonia eta etiketajea jasotzen dira; barruko hizkuntza paisaian, ostera, barruko informazio eta norabide errotulazioa, bulegoetako dietarioak, egutegiak, e.a., tresneria, fotokopiagailuetakoak, zigiluak eta anagramak, jasotzen dira.

Egoeraren azterketa leku fisikoen arabera egin da: alde batetik, udaletxe barrua eta bestetik, herrian zehar, udalaren erantzukizuna diren errotulu, seinale eta antzekoak kontabilizatu dira.

Hona hemen lehenengo eta bigarren datu- bilketako emaitzak, balorazioa eta aurrera begira hartu beharreko neurriak:

	Neurketa data:			2000		Neurketa data:			2005	
	Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Euskarazko indizea	Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Euskarazko indizea
HIZKUNTZA PAISAJEA	26	13	0	39	67%	52	7	11	70	74%
KANPOKO HIZKUNTZA PAISAJEA	15	5	0	20	75%	19	2	6	27	70%
BARRUKO HIZKUNTZA PAISAJEA	11	8	0	19	58%	33	5	5	43	77%



<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza paisajea
<b>Adierazlea:</b>	Kanpo errotulazioa (errotulu nagusia, hesietakoak, informaziozkoak eta norabidezkoak, aparkalekuetakoa, ...)
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Herrian jartzen den errotulazio osoa euskaraz egotea.
<b>Balorazioa:</b>	Aztertu diren errotulu nagusi, heri, norabidezko errotulu, zaborrontzi, aparkaleku... Guztiak euskaraz daude. Beraz, bete da jarritako helburua.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala, jartzen den errotulazio guztia euskaraz jartzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza paisajea
<b>Adierazlea:</b>	Iragarki taula eta informazioa mahaia
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	27%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Iragarki taula eta informazio mahaietan gaztelania hutsezko agiririk ez egotea.
<b>Balorazioa:</b>	Gaur egun, jartzen dira gaztelani hutsezko agiriak iragarki taulan. Aztertutako laginean, hain zuzen ere, iragarki taulako dokumentuen erdiak baino gehiago gaztelani hutsean zeuden. Dokumentu horiek normalean, Estatuko beste tokiko-administrazioetik bidalitakoak dira. Hego Euskal Herriko administrazioetatik jasotakoak, aldiz, bi hizkuntzetan jartzen dira. Hots, iristen diren modura. Hala ere, harritzekoena, Itsasondoko Udaleko dokumentu bat elebietan , baina gaztelaniari lehentasuna emanez agertzen dela da.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Tabloian eta herritarren bistan jartzen diren agiriei dagokienez, ez jarri gaztelania hutsezko agiririk edo informazio-orririk tabloian. Nahitaez jendaurrean jarri beharrekoak gaztelania hutsean iritsiz gero, jarriko dira, herritarrei kalterik ez egiteko, baina igorleari adieraziko diogu udal honek herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu nahi dituela eta beraz, euskaraz nahi ditugula horrelako agiriak.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza paisajea
<b>Adierazlea:</b>	Prentsa iragarkiak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Prentsa iragarkietako hizkuntza euskara izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza paisajea
<b>Adierazlea:</b>	Irratiko eta telebistako iragarkiak
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udalak edo honen erakunde autonomoren batek irrati edo telebistan egindako iragarkiak euskaraz izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Ez da laginik aztertu
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza paisajea
<b>Adierazlea:</b>	Etiketajea: paper/ plastiko zorro, biltzeko paper, ...
<b>1. neurketako eusk. indizea:</b>	62%
<b>2. neurketako eusk. indizea:</b>	100%
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udalaren irudia diren etiketajeko hizkuntza euskara izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua. Aztertu den etiketajea euskaraz dago.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Udalaren etiketajeaz zerbait berria sortzen bada, euskaraz sortzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza paisajea  
**Adierazlea:** Barne errotulazioa: informazio eta norabidezkoa.  
**1. neurketako eusk. indizea:** 0%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 80%

**Planean ageri den helburua:**  
Barne errotulazio osoa euskaraz edukitzea.

**Balorazioa:**  
Barne errotulazio finkorik ez dago udaletxean. Informazio orriak daude egun, lau euskaraz eta bat elebietan. Plana egin zenean, euskarazko indizea 0 izan zen, izan ere, elebietan zeuden informazio orri guztiak. Gaur egun aldiz, bakarra dago elebietan.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**  
Udal barruan jartzen den errotulazio osoa, euskaraz jartzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza paisajea  
**Adierazlea:** Bulegoetako errotulazioa: dietario, egutegi, horma-

**1. neurketako eusk. indizea:** 60%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 96%

**Planean ageri den helburua:**  
Bulegoetako errotulazio hizkuntza euskaraz egotea.

**Balorazioa:**  
Bulego errotulazioa euskaraz dago ia osorik. Garbi ikusten da plan egin zenetik hona aurrerapausoak eman direla. Egutegiak eta hormairudiak euskarazkoak dira gehienak eta baita fitxategiak ere. Hala ere, badago fitxategiren bat gaztelani hutsezko tiketarekin.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**  
Bulegoetako hormetan jartzen den edozer, euskaraz jartzea eta erabiltzen diren fitxategiak euskarazkoak izateaz gain, euskaraz idatziak egotea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza paisajea  
**Adierazlea:** Tresneriaren errotulazioa: fotokopiagailu, kafe makina,  
...

**1. neurketako eusk. indizea:** 100%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 0%

**Planean ageri den helburua:**

Ahal dela, tresneriaren errotulazioa euskaraz izatea. Dagokion zerbitzu enpresarekin hitzarmenak eginez, horretarako bideak irekitzea.

**Balorazioa:**

Egun, udaletxean dagoen tresneria guztiaren errotulazioa gaztelaniaz dago. Kafe makina eleanitza da, baina euskaraz ez da deus agertzen. Baliteke plana egin zenean tresneriaren errotulazioa euskaraz zegoela erratuta egotea, eta hori dela eta izatea indizearen jaitsiera.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Ahal dela, tresneriaren errotulazioa euskaraz izatea. Dagokion zerbitzu enpresarekin hitzarmenak eginez, horretarako bideak irekitzea.

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza paisajea  
**Adierazlea:** Zigilu, orriak: zigilu, fax orri, gutun orri/ azal, ...

**1. neurketako eusk. indizea:** 50%  
**2. neurketako eusk. indizea:** 64%

**Planean ageri den helburua:**

Udalaren zigilu eta orrietako hizkuntza euskara izatea.


**Balorazioa:**

Plana egin zenetik hona indizeak gora egin du. Gaur egun, gutun Udalaren orriak, gutun azalak eta karpetak euskaraz daude. Fax orria elebietan dago eta zigiluak lau euskaraz eta hiru elebietan.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Fax orria euskaraz jartzea. Zigiluei dagokienez, dauden zigiluak aldatzean euskarazkoak lehenetsi.

## HIZKUNTZA PAISAJEA. Kanpoko eta barrukoa





## 1.5.- BALIABIDE INFORMATIKOAK

Gero eta garrantzi handiagoa duen alorra dugu hau, udaletako funtzionamenduan baliabide informatikoen erabilera areagotuz doalako. Horrela bada, informatikaren eta teknologia berrien munduan ere, progresiboki, hizkuntza normalkuntzari ekitea komeni da.

Jarraian, plana idatzi zenean eta gaur egunean udalean dauden programa informatikoen azterketa egingo dugu:

	Neurketa	2000	Neurketa data:	2005
	Hizkuntza		Hizkuntza	
Windows	Gaztelera		Gaztelera	
Office	Gaztelera		Gaztelera	
Erregistro orokorra	Bietan		Bietan	
Ondasunen inbentarioa			Euskaraz	
Ibilgailuen errolda	Bietan		Bietan	
Biztanleen errolda	Bietan		Bietan	
Ura, zaborra eta argia	Bietan		Bietan	
Nominak	Bietan		Bietan	
Sige	Bietan		Bietan	



Helburua baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da, beti ere euskarazko bertsioek erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

Lan hizkuntza euskara izanik, programa informatikoak erosteko orduan, euskarazko bertsioa erosiko da. Windows eta Office euskarazko bertsioak eskuragarri jarriko zaizkie langileei, baldin eta erabailtzen dituzten beste programa informatikoekin bateragarriak badira.

Horrez gain, euskararen erabilerarako interesgarria litzateke (baita udalaren beraren funtzionamendurako ere) informatika sareetan sartzea, administrazio publikoek eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobeztatu ahal izateko (Euskalterm, administrazio hiztegiak).

## **1.6.- JARRERAK ETA SENTSIBILIZAZIOA**

Prozesu honetan langileen motibazioa elikatu behar da. Lehen urterako proposamena urte osoan zehar langileei komunikazio planaren bidez informazioa ematea izan zen.

Horrez gainera, herritarrek ere erabilera-planaren berri izango zuten. Horretarako, Osoko Bilkurak euskara-plana onartu zuenean, bandoa jarri zen herrian, onartutakoaren berri eman eta herritarrak udalarekiko harremanak euskaraz izan ditzaten bultzatzeko.

Aurrera begira, langileei komunikazio planaren bidez informazioa ematen jarraituko dugu. Herritarrei, aldiz, euskara planaren balorazioaren berri emango zaie.

## **2.- HIZKUNTZAREN ERABILERARAKO JARRAIBIDEAK ETA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

### **2.1 Hizkuntzaren erabilerarako jarraibideak**

Jarraian aipatu besterik ez ditugu egingo plana onartu zenean ezarri ziren erabilerarako jarraibideak, baloratu, txostenean zehar baloratzen direlako.

#### *2.1.1 Zerbitzu- hizkuntza*

Legeriak hizkuntza ofizialez diotenaren kalterik gabe, euskarak herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du udal organo politiko, administrazioko atal eta lanpostu guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman mota guztietan ziurtatu beharko da lehentasunez eta nagusiki euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoan eta bai tresna elektronikoen, informatikoen zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (Internet, fax, posta elektronikoa eta abarretan).

Era berean Itsasondogo Udalak, bere kabuz edo/ eta UEMAko beste udalekin elkartuta, dagozkion neurriak hartuko ditu bere udalerrri mugen baitan herritarrek gainerako administrazio publiko zein erakunde ofizialengandik jasotzen dituzten zerbitzuak - osasungintzakoak, hezkuntzakoak eta epaitegietakoak bereziki- euskaraz ere eman daitezela bermatzeko (epaitegi eta osasun etxeko gaur egungo euskararen egoera eta hartu beharreko neurriak eranskinean daude).

#### a) Ahozko harremanetan

1. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzugailu automatikoz, bozgorailuz, ... emandakoak) euskaraz emango dira.

2. Udal langileak euskaraz zuzenduko zaizkio herritarrari eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko dute.

#### b) Idatzizko harremanetan

Herritarrei eta erakunde pribatu nahiz enpresei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz emango da argitara, hauetakoren batek espresuki gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu. Kasu horretan jatorrizkoaren gaztelaniazko itzulpena emango zaio euskarazkoaren itzulpena dela adieraziz.

#### *2.1.2. Administrazioen arteko harremanak.*

Beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz emango da argitara eta beraiengandik gutxienez euskaraz ere jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da beti.

Horrenbestez, horietakoren batek hala jokatu ezean - hau da, gaztelaniazko agiriak bidaliz gero- igorleari itzuliko zaizkio eta gutuna bidaliko, euskaren aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratibo guztiak euskaraz jaso nahi direla jakinarazteko .

EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuaren eta honen menpeko administrazioetarako komunikazio administratiboak ere euskaraz bidaliko dira. Administrazio hauengandik gaztelania hutsean jasotako idazkiak bueltatu egingo dira - beti ere zainduz idazkiak eragindakoa ez dadila kaltetu- gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da eta euskararen aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla jakinaraziko da.

Aipatu esparruz kanpoko gainerakoei zuzendu beharreko dokumentazioa hartzailearen hizkuntzara eginiko itzulpenaz lagundurik igorriko zaie eta gutxienik euskaraz ere bidal dezatela eskatuko zaie.

### *2.1.3. Lan- hizkuntza.*

Hemen adierazten diren jarraibideak memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuetarako dira batez ere eta, erabili beharreko hizkuntza ofiziala dela- eta, legezko xedapenek ikusten ez duten bestelako idatzizko jarduketetarako.

Itsasondogo Udaleko administrazio- atal eta lanpostuetako dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortuko da: euskaraz.

Hizkuntza jarraibide hau gauzatze aldera, lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei, kasuan kasuko euskarazko bertsiorik egonez gero, eta langileari aparteko arazorik sortzen ez zaien kasuetan (programen arteko bateraezintasuna...).

## **2.2 Euskararen erabilerarako jarraibideen itzulpen- irizpide osagarriak**

Kontuan hartuz, UEMArekin bat eginik, udal honen hizkuntza helburu behinenetakoa dela, erderetara jo beharrik gabe, euskara administrazio- eta gizarte harremanetako hizkuntza bihurtzea, udaleko aginte organo, administrazio- atal eta lanpostu orok gai izan behar du euskaraz burutzeko bere ahozko eta idatzizko hizkuntz produkzio arrunt eta tekniko guztia.

Itzulpenak, horrenbestez -euskaratik edo euskarara direla-, eginkizun osagarria izango du bakar- bakarrik, aurreko puntuetan euskararen erabilerarako eman diren jarraibideekin lotuta ager litezkeen kasuan kasuko beharrian soiletarako.

Hau da, zehazki hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusi den itzulpen beharria: herritarrei nahiz beste administrazio batzuei elebizi bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskara itzultzea. Aipatu itzulpen beharrianari nola erantzun zehazteko, berriz, udal langileak arduratuko dira itzulpena egiteaz agiri labur (orri 1) edo errepikakorra denean, eta itzulpen- zerbitzu batengana joko da itzulpen luzeagoetan. Horretarako, UEMako web gunean eskura izango dute zerbitzu hori emateko prest diren euskal itzultzaileen zerrenda.

**Atala:** OROKORRA

**Alorra:** Hizkuntzaren erabilerarako jarraibideak

**Adierazlea:** Itzulpen irizpideak

**Planean ageri den helburua:**

Goian aipatzen dena

**Balorazioa:**

Oro har ez da itzulpenik egiten. Hala ere, hainbat egoeratan itzulpenene bat edo beste egitea egokitu izan zaie Udaleko langileei. Egoera horietan gaztelaniatik euskarar itzuli izan dira testuak. Gainerakoan, ez da itzulpenik egiteko beharrik izan Udalak euskaraz funtzionatzen duelako. Hala ere, erdaldun presentzia handitu delako herrian, administtrari laguntzaileak udaletik atera behar idatzian gaztelaniaz laburpen txiki bat ein izan du jatorrizko testua euskarazkoa baita. Laburpen txiki hori jatorrizko testuaren azpian joaten da eta letra txikiagoz.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Itzulpen irizpideak errespetatzea eta behar beharrezkoa denean baino ez egitea gaztelaniazko itzulpena. Orri bat baino gehiago itzuli behar denean, langileei gain zama hori kentzeko helburuz, kanpo itzulpen zerbitzu baterara jotzea.

## **2.3 Zenbait jarduera-esparrutarako hizkuntz irizpideak**

Plana onartzean, honako jarduera-esparruok hartu ziren kontuan:

- \* Langileen etengabeko prestakuntza
- \* Kontratazioak
- \* Dirulaguntzak
- \* Administrazioaren irudia eta argitalpenak
- \* Ekitaldi publikoak
- \* Udal-baimenak

Jarraian, esparruz esparru azalduko ditugu planean onartutako irizpideak, balorazioak eta aurrera begirako proposamenak.

### **2.3.1. LANGILEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA**

#### **2.3.3.1.- Hizkuntz prestakuntza**

Hizkuntz prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntz eskakizun zehatzak, eta bai plan honek atalerako jarritako helburuak ere.

Legeek arautzen dutenari jarraituz, beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntz prestakuntza egokia lor dezaten.

Hizkuntz prestakuntzari buruz administrazio honek jarraituko duen politikak lanpostu zerrendari aplikatzen zaion derrigorrezko indizeak adierazten dituen hizkuntz helburuak izango ditu kontuan.

Horretarako irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lan-orduetan hizkuntz prestakuntzako baimenak ematerakoan:

- 1) Derrigorrez bete beharreko hizkuntza eskakizunek dakartzaten prestakuntza- beharriari aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariak jarriko dira lehenengo.
- 2) Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntz erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.
- 3) Edozein kasutan, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langile guztiak izango dira kontuan hizkuntz prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionarioak izan.

Hizkuntz prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko gizalegezko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei plangintzaldi hau arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 44. atalean aurreikusten den lanpostutik kentzeko espedientea hasiko zaie.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Langileen etengabeko prestakuntza. Hizkuntza
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Langileek lana euskaraz kalitatez egitea.
<b>Balorazioa:</b>	Plana egin zenean, langile guztiek bazuten zegokien HE egiaztatuta. Hortik aurrera, ez du inongo langilek hizkuntza prestakuntzarako baimenik eskatu, langileren bat aritu izan da UEMAK web orrian jarritako trebakuntza ariketak egiten. Hala ere, iaz administrari laguntzaileak bere kasa 4HE atera zuen.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Inoiz UEMAREN bidez-edo hizuntza prestakuntzako ikastarorik antolatuko balitz, eta langileek hala eskatuko balute, baimenak ematea.

### 2.2.1.2.- Langileen etengabeko prestakuntza

Plangintzaldi honen lehen urtean udalean egiten diren prestakuntza-ikastaroen azterketa egingo da, horien hizkuntz egoera jakiteko. Ondoren, emaitzen arabera finkatuko dira aurrera begira eremu honetan jarraitu beharreko hizkuntz irizpideak. Bien bitartean, ondorengo hizkuntz irizpide orokorrak aplikatuko dira:

- § Arian-arian ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango da hizkuntz gaitasun nahikoa duten langileentzat.
- § Prestakuntza ekintzen eskaintzetan, izaera orokorra dutenek izango dute lehentasuna.
- § Prestakuntza eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.
- § Euskarazko eskaintzaren ezaugarriak gaztelaniazko bezain erakargarriak izan beharko dute.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Langileen etengabeko prestakuntza. Etengabeko
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Langileei eskaini beharreko formazio-ikastaroak euskaraz izatea.
<b>Balorazioa:</b>	Azkenaldian antolatu diren ikastaroak bi izan dira: Herri Erakundeek Kudeaketa eta APSISNET. Lehenengoa UEUK antolatua eta euskaraz izan da eta bigarrena EJK antolatua gaztelaniaz. Gaztelaniaz egin den ikastaroa euskaraz eskatu zen eta ez zegoela ikastaro hori euskaraz erantzun zutelako egin behar izan zuten gaztelaniaz, baina eskatu, eskatu zen.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala, langileei eskaintzen zaizkien ikastaroak euskaraz izango dirala bermatzen saiatzea. Eta ezinezkoa den kasuetan UEMARI jakinaraztea, hala antolatzaile den erakundearekin harremanetan jarri eta hizkuntza kontuan har dezaten saiakera egiteko.

## 2.2.2.- KONTRATAZIOAK

Kontratu mota bi bereizi ditugu: alde batetik, langileak kontratatzerako orduan kontuan izan beharreko irizpideena, eta bestetik, zerbitzuak kontratatzerakoan jarraituko den prozedura eta kontuan izango diren puntuak.

### 2.2.2.1.- Aldi baterako langileen kontratazioa

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langilerik kontratatu behar izanez gero, udalak plantilako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien HEren pareko euskara gaitasuna eskatuko die. EAeko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, II. Idazpurua, I. Atalburua, 15.1 atalean d) puntuan zehaztutakoari jarraituz egingo da .

1. atala: 1. lanpostu zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

(...)

*d) Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horiek artean derrigorrez hizkuntza eskakizuna eta horrek indarra galtzen dueneko eguna (...)"*

Beraz, udalean lanpostuak betetzeko hizkuntza eskakizuna eskatuko da:

- i. Derrigorrez, udal-lanpostu zerrendako lanpostuetan jasota dauden moduan.
- ii. Derrigorrez, aldi baterako lanpostuak betetzeko denean nahiz eta udal lanpostu zerrendakoak ez izan.

Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den ondorengo euskara-mailetatik kasuan kasuko kontratazioan eskatuko dena:

- Ahoz eta idatziz euskara ulertzea (1HE)
- Euskara ulertzea, mintzatzea eta irakurtzea (2HE)
- Euskara ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea (3HE)
- Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta

Beharrezkoa denean, beraz, udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei.

Kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sinatuko dira.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Aldi baterako langileen kontratazioa
<b>Planean ageri den helburua:</b>	1.- Kontratatzen diren pertsona guztiak elebidunak izatea eta lana euskaraz eigiteko kapaz izatea. Hori egiaztatzeke lanpostuari dagokion HE eskatzea. 2.- Kontratua euskaraz sinatzea.
<b>Balorazioa:</b>	1.- Bete da jarritako helburua. 2.- Kontratuak normalean euskaraz sinatzen dira. INEMen bidez egiten bada, elebieten.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Udal lanpostu zerrendako langileen kontratazioa
<b>Planean ageri den helburua:</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1.- Kontratatzaren diren pertsona guztiak elebidunak izatea eta lana euskaraz egiteko kapaz izatea. Hori egiaztatzeko lanpostuari dagokion HE eskatzea.</li><li>2.- Kontratua euskaraz sinatzea.</li></ol>
<b>Balorazioa:</b>	Bete dira jarritako helburuak.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

### 2.2.2.2.- Kontratazio administratiboak

1. Udalaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez .

2. Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d atalean ezarritakoari jarraiki, honako neurriak hartuko dira:

\* Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.

\* Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.

\* Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu- prestazioa denean edo/ eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak, ...) aipatu hizkuntza baldintza horiek betetzen ez badira edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntz gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez bada, espedientea irekiko da kalte- ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.

Udaletan egin ohi diren kontratazio motak kontuan hartuz, Itsasondogo Udalaren kontratazioen lehen azterketaren arabera, bost kontratu mota daude:

- K-1/ Udal ondasunen mantenimendu- kontratuak
- K-2/ Aholkularitza teknikoa emateko kontratuak
- K-3/ Herritarrei zerbitzua emateko kontratuak
- K-4/ Udal instalazioen esplotazioa
- K-5/ Hornidurak

**Atala:** OROKORRA  
**Alorra:** Hizkuntza irizpideak  
**Adierazlea:** Kontratazioak. Kontratazio administratiboak.

**Planean ageri den helburua:**

Udalak kontratatzen dituen enpresek udalak beretzat jarritako hizkuntza irizpide berberak betetzea.

**Balorazioa:**

Beheko taulan agertzen diren kanpo zerbitzu guztiak ez dauzka kontratatuta Udalak, baiian haiekiko harremanetan jarraitu beharreko irizpideak berdintsuak direlako jaso nahi izan ditugu.

Taula hori langileek bete dute; maizena erabiltzen diren kanpo zerbitzuak dira. Ez dugu azertu zuzenean herritarrei zerbitzua emateko kontratatutako kanpo zerbitzurik.

Plana egin zenetik izan diren kontratazioetan, beti ez dela hizkuntza irizpidea kontuan hartu ondorioztatzen da. Esate baterako, informatika mantenimendua emateko enpresa aldatu egin da plan egin zenetik. Hala ere, gaur egun dagoen enpresarekin idatzizko harreman guztiak gaztelaniaz izaten jarraitzen dute. Bestalde, aurrera pausoak eman dira aholkularitza juridikoan eta arkitektuaren kasuan. Aholkularitza juridikoari dagokionez, idatzizko harremanetan, bi hizkuntzak erabiltzera iritsi da. Arkitektua berriz, plana egin zenean erdalduna zen, baiian ordutik aldatu egin da eta egun Udaleko arkitektua euskalduna da.

Badira, oraindik harremanak euskaraz izatea eragozten diguten beste enpresa batzuk: Montte eta Garbik.

Beraz, esan bezala, plana onartu zenetik eman dira urrats batzuk hizkuntzaren normalizazioari dagokionez, baina oraindik badaude ematekoak.

**Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:**

Helburua betetze aldera, behar beharrezkoa zaigu hemendik aurrera zerbitzu enpresak kontratatzerakoan ateratzen diren baldintza plegu guztietan euskara klausulak sartzea. Jarraipen berezia egingo zaie herritarrekin harremana izan dezaketen kontratatutako enpresei. Bestetik, kontratatuturik ez dugun enpresekin, baina harreman iraunkorra dugunekin, harreman hori (ahozkoa eta idatzizkoa) euskaraz izateko bideak jarri behar dira. Adibidez: fakturak, aurrekontuak eta antzekoak euskaraz emateko eskatu behar zaiek eta euskaraz dakiten langileak identifikatu behar dira.

**KANPO ZERB.**

	Enpresa	Ahoz			Idatziz		
		Eusk.	Bi	Gazt.	Eusk.	Bi	Gazt.
Informatika mant.	CHIP		X				X
Fotokopiagailu mant.	UDALA						
Bulego-tresnen mant.	BULEGOAK		X				
Su itzalgailu mant.	BABESA						
Aholkularitza juridikoa	ORUE ABOGADOS	X				X	
Arkitektoa	PILAR AZURMENDI	X			X		
Aparejadorea	JUAN MIGUEL ZUBELDIA	X					X
Kontabilit. aholkularitza	UDALA						
Nominak	UDALA						
Ur konts. Fakt.	UDALA-IZFE		X			X	
Gizarte laguntzailea	UDALA						
Zerga bilketa	UDALA						
Kirol insta. Esplot.	UDALA						
Edari/ ostal. Esplotazioa	UDALA						
SOINKETA	PATXI URRESTARAZU	X			X		
Bulego materiala	MONTTE	X					X
Garbiketa materiala	EXCLUSIVAS URAN			X		X	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
	<b>GUZTIRA ehunekotan</b>	<b>56</b>	<b>33</b>	<b>11</b>	<b>25</b>	<b>38</b>	<b>38</b>

### 2.3.3. DIRULAGUNTZAK

Gizarte- zerbitzuetakoak ez, beste dirulaguntzak esleitzerakoan -kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat- , udalak kontuan izango du eskatzaileak eskaera egiteko zein zerbitzua emateko dagien euskararen erabilera eta, zehazkiago, ondorengo eskatuko da:

1. Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izatea.
2. Dirulaguntzaren xede den ekintza -haur eta gazteei zuzendua denean, bereziki- euskaraz egingo dela bermatzea.
3. Dirulaguntzaren xede den ekintzaren publizitatea euskaraz egitea, gutxienez beste hizkuntzen maila berean, bai kopuruari bai tamainari dagokionez.
4. Beheragoko orrialdeetan hirigintza- alorreko udal- baimenetako hizkuntza irizpideak jorratzen dituen 2) puntuaren eraginkortasunerako, udalak zehaztuko du nola diruz lagundu beren jardunbideko errotulazioa gaztelaniatik euskarara aldatzen duten establezimenduak.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Dirulaguntzak
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udalarengandik dirulaguntza jasotzen duten taldeek, elkarteek, diru hori gastatuko duten ekintzan euskararen presentzia garantizatzea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua. Gaur egun (idatzizko frogarik gabe) esan daiteke Udalak diru-laguntzak emateko baldintzetan euskara klausula sartzen duela eta hori betetzen den jarraipean egiten dela.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Orain arte bezala jarraitzea.

### 2.3.4. ADMINISTRAZIOAREN IRUDIA ETA ARGITALPENAK.

Itsasondogo Udalaren irudi eta argitalpenetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko ondoko jarraibideak beteko dira:

1. Udalaren eta honen menpeko erakundeen idazki oro beti euskaraz gutxienez argitaratuko da.
2. Helburua udalerrian zabaldu beharreko agiriak euskaraz argitaratzea da.
3. Iragarpen ofiziala egin beharreko agiriak euskaraz argitaratuko dira.
4. Sortze hizkuntza euskara izango da, eta behar-beharrezkoa denean, gaztelerazko laburpena gehituko zaio.
5. Arreta berezia jarriko zaio, udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeari. Udalak, kontuan hartu beharko du beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriek argiak eta ulergarriak izan behar dute.
6. Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dira.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Administrazioaren irudia eta argitalpenak
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Goian eta hizkuntza paisajeko eta kanpo harremanetako helburuetan azaldutakoa.
<b>Balorazioa:</b>	<p><b><u>Iragarkin taula:</u></b> Euskal Herriko instituzioek bidalitko idatziak elebidun jartzen dira, iritsi bezalaxe. Gainontzeko instituzioetatik gaztelani hutsean iristen diren dokumentuak horrelaxe jartzen dira. Udalarenak diren idatziak normalean euskaraz jartzen dira, baina laginketa epean, gaztelaniari lehentasuna emanda zegoen dokumentu bat ere aurkitu zen.</p> <p><b><u>Kalean jartzen diren oharrak:</u></b> Udalak euskaraz jartzen ditu oharrak.</p> <p><b><u>Iragarki ofizialak:</u></b> GAO-n argitaratu behar dena euskara hutsean bidaltzen da.</p> <p><b><u>Prentsako iragarkiak:</u></b> Udalak euskaraz argitaratzen ditu prentsa iragarkiak.</p> <p><b><u>Argitalpenak:</u></b> Udalak argitalpen guztiak euskaraz egiten ditu.</p>
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	<p>Irizpide honetan eta hizkuntza paisajeko eta kanpo harremanetako helburuetan azaldutako bete.</p> <p><b><u>Iragarki taula:</u></b> Tabloian eta herritarren bistan jartzen diren agiriei dagokienez, ez jarri gaztelania hutseko agiririk edo informazio-orririk tabloian. Nahitaez jendaurrean jarri beharrekoak gaztelania hutsean iritsez gero, jarriko dira, herritarrei kalterik ez egiteko, baina igorleari adieraziko diogu udal honek herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu nahi dituela eta beraz, euskaraz nahi ditugula horrelako agiriak.</p> <p><b><u>Kalean jartzen diren oharrak:</u></b> Kaleko eta hartzaile jakinik gabeko bando, iragarki eta oharrak euskaraz izatea, orain arte egin den bezala.</p> <p><b><u>Iragarki ofizialak:</u></b> GAO-n argitaratu behar dena euskara hutsean bidaltzen jarraitu.</p> <p><b><u>Argitalpenak:</u></b> Orain arte bezala jarraitu. Udalaren argitalpenak euskara hutsean (eta euskara zuzen eta egokian) egitea da helburua.</p>

**Prentsako iragarkiak:** Irizpidea da iragarkiak euskaraz sortzea, euskaraz bidaltzea eta euskaraz argitaratzea.

## 2.2.5.- EKITALDI PUBLIKOAK

Udaleko edo honen erakunde autonomoetako kargu eta enplegatuek euskara erabiliko dute udalerrian egin litezkeen ekitaldi publikoetan, erakundean duten kargu edo lanpostuagatik ari badira.

Era berean, udalak zainduko du halako ekitaldietarako izendatuko dituen pertsonak euskarazko hizkuntz gaitasun egokia dutenak izan daitezen.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Ekitaldi publikoak
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udaleko karguek eta enplegatuek udalaren izenean parte hartzen duten ekitaldietan euskara erabiltzea eta ekitaldian euskararen erabilera ziurtatzea.
<b>Balorazioa:</b>	Bete da jarritako helburua.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Oran arte bezala jarraitu.

## 2.2.6.- UDAL-BAIMENAK

### 2.2.6.1.- Hirigintza

1. Udalak herritar arruntei edo jardunbide honetako enpresei hirigintzako baimenen bat eman behar dienean, ondorengo baldintzapean emango die: ageriko hizkuntz erabileran bederen -iragarpen,errotulu, ohar, seinale e.a.etan, alegia- euskara erabil dezatela, alegia; edo, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskara gutxienez gaztelaniaren pareko presentzia, kopuruaren eta tamainaren aldetik.

2. Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean udalak errotulazioa euskaraz jar dezala eskatuko dio eskatzaileari (*Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua, abenduaren 22ko 6/2003 Legea*).

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Udal baimenak. Hirigintza.
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Obretako baimenak ematean, ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea. Irekitzeko baimenetan eskatzaileak errotulazioa euskaraz jartzea.
<b>Balorazioa:</b>	Obra baiemank ematerako orduan, ez da baldintzetan euskararen baldintzarik jartzen. Irekiera baimena eman aurretik, errotulua euskaraz jartzeko eskatzen da eta egiten da horren jarraipena.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Obra baimenak ematerako orduan, euskara baldintza sartzea. Irekiera baimenarekin, orain arte bezala jarraitzea.

### 2.2.6.2.- Udal-instalazioak

Edozein delarik ere ekitaldia, udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Itsasondogo Udalak euskara erabiliko dela ziurtatzea exigituko du, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta udalaren hizkuntz baldintzei jaramonik egiten ez badie, udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimen-ukapena, isuna...) hizkuntz araudia bete ez dutenen aurka.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Udal baimenak. Udalaren lokalak eta azpiegitura erabiltzea.
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Udalaren lokala erabiltzen den ekitaldian euskara erabiltzeko eskatzea. Udalaren azpiegitura erabiliko den ekintzan euskara erabiliko dela bermatzea.
<b>Balorazioa:</b>	Lokalak erabiltzeko baimenak emateko baldintzetan, ez da euskara baldintzarik sartzen. Hala ere, lokalak erabiltzea eskatu denetan euskara erabili dela uste dute.
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Baimenak ematerako orduan, baldintzetan hizkuntzarena espreski aipatzea.

### 2.2.6.3.- Jaietako postuak

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenei udalak honako neurriak betetzearen baldintzapean emango die baimena:

1. Prezioen eta oharren errotuluak bederen euskaraz jartzea.
2. Girotzeko, udalak euskal musika erabiltzea bultzatuko du.

<b>Atala:</b>	OROKORRA
<b>Alorra:</b>	Hizkuntza irizpideak
<b>Adierazlea:</b>	Udal baimenak. Jaietako postuak.
<b>Planean ageri den helburua:</b>	Prezio eta oharren errotuluak gutxienez euskaraz egotea eta euskal musika ipiniko dutela bermatzea.
<b>Balorazioa:</b>	Jaietako postuak jartzerako orduan, ez a hizkuntza irizpideen berri ematen. Izan ere, herriko elkarteez gain ez du inork baimenik eskatzen posturik jartzeko, jaietan etortzen diren bateren batzuk izan ezik..
<b>Aurrera begira hartu beharreko neurriak/ proposamenak:</b>	Norbaitek postuak jartzeko baimena eskatzen duenerako baldintza batzuk zehaztuta izatea, eta tartean euskararen baldintza sartzea.

